

3seuskadi

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala eta 2030 Agenda. Erakundeen esperientziak Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotuta

Txostena

Azaroa
2023



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Egilea: Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektore Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1 artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektore soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haien banatzea, kopiatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



Aurkibidea

1.	SARRERA.....	1
2.	METODOLOGIA ETA SAILKAPENA	4
3.	KANPORANZKO BEGIRADA.....	6
3.1.	Hedatzea eta/edo sentsibilizatzea.....	6
3.2.	Jardunaldiak	9
3.3.	Jarduerak/tailerrak.....	12
3.4.	Prestakuntza.....	14
3.5.	Gidak	18
3.6.	Baliabide pedagogikoak.....	19
3.7.	Programak eta/edo proiektuak	21
3.8.	Argitalpenak	23
4.	BARRURANZKO BEGIRADA	26
4.1.	Plan estrategikoak.....	26
4.2.	Memoria korporatiboak	27
4.3.	Jarrera eta/edo konpromisoa adierazteko dokumentuak	28
4.4.	Barneko prestakuntza.....	29

1. SARRERA

Txosten honetan, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko (aurrerantzean, EHSS) erakundeek 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (aurrerantzean, GIH) gauzatu dituzten esperientzia hautatuak jaso dira.

Hiru urte baino gehiago iraun zuen mundu-mailako kontsulta-prozesu baten ostean, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen 2015eko irailean, NBEko 193 estatu kideen adostasunez.¹ Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da, giza garapenari laguntzera bideratu dena eta gizartean, ekonomian eta ingurumenean ekintza jasangarriak eginez gauzatuko dena.

Helburuak eta xedek hiru urte baino gehiago luzatu den prozesu baten emaitza dira, eta kontsulta publikoetan eta gizartearekiko elkarreraginean (sektorerik zaugarrienekin bereziki) oinarritu da. 17 GJHeK eta 169 xedek multzo oso eta zatietan bat osatzen dute. Irismena mundu-mailakoa da, eta aplikazioa ere unibertsala. Helburuak kontratu sozialeko kultura bat bultzatzeko aukera bat dira, jasangarritasunerako eta elkartasunerako konpromisoak oinarritzat hartuta.

1. irudia. GJHen laburpena



Iturria: Google irudiak (2023)

¹ Esteka honen webgunean informazio gehiago dago: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>.

2030 Agenda NBEko estatu kideek mundu-mailan egindako dei baten ondorioz sortu zen. Zehazki, deiak neurri jakin batzuk hartzea zuen helburu, pobrezia desagerrarazi, planeta babestu, herritarrek beren eskubideak eraginkortasunez gauzatu ditzaketela bermatu eta, oro har, planetak aurrez aurre dituen egungo erronkei erantzuteko. 2030 Agenda gobernu, gizarte zibil, eremu akademiko eta sektore pribatuarentzako gonbidapen bat da, GJHak erdiesteko lan egin dezaten. Horregatik, asmo handiko agenda bat da, eta gizarteko sektore guztiek parte hartu behar dute egitasmoa ezarri ahal izateko.

Onartu zirenetik, 2030 Agenda eta GJHak mundu-mailan aitortuta dagoen erreferentzia-esparru bihurtu dira. Hala, eraldaketa sozialeko agente ugari beren hartu dituzte helburu horiek; besteak beste, Hirugarren Sektore Sozialeko sareak eta erakundeak. GJHek xede jakin batzuk planteatu dituzte 2030erako, oinarri hauekin: pobrezia desagerraraztea; hezkuntza, enplegua eta informazioa lortzeko aukerak hobetzea; osasuna eta etxebizitza hobetzea; eta desberdintasunak murriztea kontsumo, ekoizpen eta elikadura jasangarrien bidez. Ildo horretan, GJHak zuzenean lotuta daude EHSSko erakundeek sustatzen dituzten balioak, misioa eta eraldaketa sozialerako jarduerarekin.

Lotura horren adibide adierazgarri bat Sareen Sareak 2022ko apirilean argitaratutako dokumentua da; hartan, EHSSk 2030 Agenda eta GJHak direla-eta egin dituen ekarpenak eta hartu duen jarrera azaltzen dira ². Zehatz-mehatz, EHSSk 2030 Agendarekin eta horren helburu eta xedeekin duen konpromisoa agerian geratzen da, eta, horrez gain, azpimarratzen da EHSSk bere muinean bertan duela gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa, kohesionatuagoa eta parte-hartzaileagoa elkarlanean eraikitzeko borondate irmoa.

EHSSko erakundeek egiten dituzten jardueren helburua zaugarritasun-, bazterkeria-, babesgabetasun-, desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoeretan dauden pertsonen, familien eta kolektiboen inklusio soziala eta eskubideen egikaritzea sustatzea da. Eta, horretarako, intzidentziarekin, sentsibilizazioarekin edo salaketarekin lotutako zerbitzuak (erantzukizun publikokoak, edo ez) edo jarduerak eskaintzen dituzte.

GJHek sustatzen dituzten balioak eta neurriak zein diren kontuan hartuta, 2030 Agendarekiko konpromisoa ezinbestekoa da, eta bulkada hori EHSSko erakundeek (beste eragile batzuen artean) bultzatzen duten eraldaketa soziala antolatzeko funtsezko ardatz bat da. Esparru horretan, 2030 Agendarekin lotuta dauden esperientziak eta ekintzak ezagutu eta partekatzea garatzen jarraitzeko inspirazio-iturri izan daiteke.

Hala, txosten honen **helburua** EHSSko erakundeak GJHen inguruan egiten ari diren **ekintzen panoramika** eskaintzea da, 2030 Agenda beren jarduera-esfera edo -eremuetan lantzen eta/edo txertatzen ari baitira. Era horretan, erakunde batzuek GJHak direla-eta beren gain hartu duten konpromisoa agerian jarri eta erakundeen eskura dauden baliabideak ezagutzera eman nahi dira, eta 2030 Agendarekin lerrokatuta dagoen ekintzaren bat abiarazi nahi duten erakundeei lan horretarako arrastoak eskaini nahi zaizkie.

² Txostena hemen eskuratu daiteke: <https://sareensarea.eus/wp-content/uploads/2022/06/Tercer-Sector-Social-de-Euskadi-ante-la-Agenda-2030-y-los-ODS.pdf>.

Esperientziak identifikatze aldera, denbora-erreferentzia 2017. urtea izatea erabaki da, 2030 Agenda orduan jarri baitzen martxan. Beraz, urte horretatik gaurdaino garatu diren esperientziak identifikatu dira. Eremu geografikoari dagokionez, hiru lurralde historikoetan dauden EHSSko erakundeen esperientziak identifikatu dira txostenean.

Guztira, **133 esperientzia** jaso dira. EHSSko 84 erakunderen eta Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren esperientziak dira (Behatokiak bi egin ditu).

133 esperientziak bi bloketan egituratu dira. Lehen blokean, GJHeKin lotuta dauden esperientziak fokua erakundeetatik kanpo jartzen dute (jardunaldiak, gidak, etab.). Guztira, horrelako 113 esperientzia identifikatu dira. Bigarren blokean, GJHeKin lotuta dauden esperientziak fokua erakundeen barruan jartzen dute (jarrera, prestakuntza, etab.), eta 20 esperientzia identifikatu dira guztira.

Esan bezala, txostenean 133 esperientzia jaso dira. Hala ere, badakigu askoz ekintza gehiago jarri direla martxan, eta EHSSko askoz erakunde gehiagok lan egin dutela Euskadin 2030 Agenda eta GJHak garatzeko lanean. Esate baterako, ekintzak identifikatu dira X, LinkedIn eta Facebook sare sozialetan eta hainbat webgunetako albiste edo sarreretan, baina ez da ekintzari buruzko nahikoa informazioa ematen eta, hortaz, ez dira txostenean jaso.

Horiek horrela, eta identifikatu diren esperientziak ikusita, gure txostenean jaso ditugunek 2030 Agendaren garapenarekin eta GJHeKin konpromisoa duen EHSS aktibo bat erakusten dute.

2. METODOLOGIA ETA SAILKAPENA

Esperientziak identifikatzeko, **lehen eta bigarren mailako iturriak** kontsultatu dira webgunea arakatzeko oinarritutako informazio-bilketa teknikoaren bitartez. Kontsulta eginez, esperientziak sailkatu eta erregistratu ahal izan dira, gainera.

Esperientzia bakoitza ikusi ahal izateko web-esteka eskaintzen da, ahalik eta informazio gehien eskura edukitzeko.

Gainera, informazioa erakundeek berek zuzenean emateko ahalegina egin da, eta, ezinezkoa izan denean, zenbait iturri alderatu dira, Internet bidez lortutako informazioa osatu eta horren fidagarritasuna egiaztatzeko.

Esperientzia bakoitzari buruzko informazioarekin, fitxa bat osatu da, eremu hauekin: **esperientziaren izena, informazioa ikusteko web-esteka, erakundea eta esperientziaren deskribapen laburra.**

Esperientziak sailkatzeko, fitxak bi bloketan antolatu dira. Lehen blokea **kanporanzko begirada** da, eta, hartan, erakundeek GJHak eta 2030 Agenda kanporantz lantzeko esperientziak jaso dira. Horrelakoetan, hartzaileak herritarrak dira, oro har, edo erakundeen ekintza nagusiaren jomuga diren pertsonak edo kolektiboak. Bigarren blokea **barruranzko begirada** da, eta, beraz, GJHak eta 2030 Agenda erakundeen baitan lantzeko esperientziak dira.

Zehatz-mehatz, sailkapen hau proposatzen da:

Kanporanzko begirada

1. **Hedatzea eta/edo sentsibilizatzea.** Erakundeek horrelako ekintzak egin dituzte 2030 Agenda ezagutzera emateko eta GJHen bidez garatzearen garrantzia landu eta sakontzeko, pertsona guztientzako etorkizun hobea eta jasangarriagoa lortzeko xedearekin.
2. **Jardunaldiak.** Erakundeek egindako jardunaldiak, topaketak, ekitaldiak, etab., gai nagusia 2030 Agenda eta/edo GJHak izan denean.
3. **Jarduerak eta/edo tailerrak.** Erakundeek noizean behin egindako aurrez aurreko heziketa-jarduerak, 2030 Agenda eta GJHak lantzeko.
4. **Prestakuntza.** 2030 Agendaren eta/edo GJHen askotariko alderdietan sakontzeko prestakuntza-ekintzak.
5. **Gidak.** Argibide zehatzak jasotzen dituzten argitalpenak, GJHak hainbat jarduera-arlotan lantzeko edo horiek txertatzeari buruz hausnartzeko.
6. **Baliabide pedagogikoak.** 2030 Agenda eta GJHak lantzeko heziketa-baliabideak: materialak, jolasak, jarduerak, unitate didaktikoak eta bideoak, besteak beste.

7. **Programak eta/edo proiektuak.** EHSSko erakunde batzuek egindako programa edo proiektu handiak, 2030 Agenda eta GJHak hainbat arlotan eta zeharka lantzeko asmoarekin bideratu dituztenak. Kasu batzuetan, proiektuak zenbait erakundek elkarrekin garatu dituzte.
8. **Argitalpenak.** EHSSko erakundeek 2030 Agendari eta GJHei buruz egindako dokumentuak, txostenak, monografiak, dosierrak artikuluak eta sarrerak.

Barruranzko begirada

1. **Plan estrategikoak.** EHSSko erakundeek 2030 Agenda eta GJHak berariaz txertatu dituzten kudeaketa-dokumentuak.
2. **Memoria korporatiboak.** Erakundeek jardueri buruz egindako memoriak, 2030 Agenda eta GJHak direla-eta egin duten lanaren xehetasunak biltzen dituztenak.
3. **Jarrera edo konpromisoa adierazteko dokumentuak.** EHSSko erakundeek egindako dokumentuak, zeinetan 2030 Agendarekin eta GJHein lotutako jarrera edo konpromiso zehatzen berri ematen baita modu esplizituan.
4. **Barneko prestakuntza.** EHSSko erakundeek barne-egituran egindako prestakuntza-ekintzak, 2030 Agenda eta GJHak lantzeko.

3. KANPORANZKO BEGIRADA

3.1. Hedatzea eta/edo sentsibilizatzea

Atal honetan, erakundeek 2030 Agenda ezagutzera emateko eta GJHeekin garatzearen garrantzia landu eta sakontzeko egin dituzten ekintzak jaso dira, pertsona guztientzako etorkizun hobea eta jasangarriagoa lortzeko xedearekin.

Esperientziaren izena	<u>2030 Agenda</u>
Erakundea	Kale Dor Kayiko
Esperientziaren deskribapena	2030 Agenda osatzen duten 17 GJHetako bakoitzaren edukia aurkezten duen bideoa.

Esperientziaren izena	<u>NotiAgenda</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	2030 Agendako 17 GJHak aurkezten dituzten materialak, eskema honi jarraituz: <ul style="list-style-type: none"> • Helburuaren edukia. • Tokian tokiko gobernuak xedeen jarraipena egiteko eta hobekuntzak egiteko oinarritzko gomendioak. • Gure gomendioak (Haurralde Fundazioaren gomendioak).

Esperientziaren izena	<u>2030 Agendaren aldeko lankidetzak-akordioa</u>
Erakundea	EAEko UNICEF
Esperientziaren deskribapena	EAEko UNICEFen eta Kazetarien Euskal Elkargoaren arteko lankidetzak-akordioa, Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda hedatzeko. Zehazki, hainbat gairi buruz sentsibilizatu nahi da: hezkuntza, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, ingurumena babestea, kalitate oneko hezkuntza...

Esperientziaren izena	<u>Erakusketa birtuala: "Gure mundua eraldatzeko 17 helburu"</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	2030 Agenda osatzen duten GJHen berri ematen duen erakusketa, mundu-mailako gaiak jorrotzen dituzten irudietan berrinterpretatuak; besteak beste, gosearen aurkako borroka, osasuna, jasangarritasuna, kontsumoa, bakea eta genero-berdintasuna.

Esperientziaren izena	<u>2030 Agenda eta giza eskubideak</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Giza eskubideek 2030 Agendan duten lekuari buruzko bideoa.

Esperientziaren izena	<u>GJHen egutegia</u>
Erakundea	Garapenerako euskal lankidetzako Coopera Euskadi elkarte
Esperientziaren deskribapena	Hilabeteen egutegi bat, 14. GJHa (itsaspeko bizona) eta 15. GJHa (lehorreko ekosistemetako bizona) lantzeko ideia, gogoeta eta abarrek.

Esperientziaren izena	<u>GJHak ezagunak egiten zaizkit, baina ez dakit zer diren...</u>
Erakundea	Garapenerako euskal lankidetzako Coopera Euskadi elkarteak
Esperientziaren deskribapena	<i>Nahi dugun etorkizuna</i> podcast-zikloaren 1. kapitulua. "GJHak ezagunak egiten zaizkit, baina ez dakit zer diren..." kapituluan, UN Etxeko zuzendariak eta eraldaketa sozialerako kulturaren arduradunak parte hartzen dute.
Esperientziaren izena	<u>GJHak KOMIKnikatzen: desberdintasunen kontrako komikia</u>
Erakundea	Kolonbia-Euskadi elkarteak
Esperientziaren deskribapena	"GJHak KOMIKnikatzen: desberdintasunen kontrako komikia" erakusketa Kolonbia-Euskadi elkarteak 2030 Agenda osatzen duten GJHak sustatzeko dinamizatu dituen jardueren emaitza da.
Esperientziaren izena	<u>5. GJHa (genero-berdintasuna) eta 13. GJHa (klimaren aldeko ekintza)</u>
Erakundea	Kolonbia-Euskadi elkarteak
Esperientziaren deskribapena	Genero-berdintasunari buruzko 5. GJHa eta klimaren aldeko ekintzari buruzko 13. GJHa lantzeko bideoa, bi bloke hauetan oinarrituta: Zer lotura dago klima-aldaketaren eta genero-berdintasunaren artean? Eta... Zer egin dezakegu?
Esperientziaren izena	<u>5. GJHa sustatzen (genero-berdintasuna) – Familia-komisariak</u>
Erakundea	Kolonbia-Euskadi elkarteak
Esperientziaren deskribapena	Familia-komisariak aurkezteko bideoa. Indarkeriaren biktimak familia-komisarietara joaten dira tratatu txarrak salatzen. Planadaseko (Kolonbia) komisariaren baldintzak hobetu eta gero, biktimek eta funtzionarioek espazio seguruago bat dute lasai hitz egiteko eta nahi dutena adierazteko. Kolonbia-Euskadi, Gasteizko Haaly Pular eta Nazioarteko Elkartasuna – Solidaridad Internacional erakundeek antolatutako proiektu bat da.
Esperientziaren izena	<u>2030 Agendaren helburuak eta Euskadiko kontratu soziala ezagutzera ematea</u>
Erakundea	Asocolvas – Euskadiko kolonbiarren elkarteak
Esperientziaren deskribapena	Zenbait jarduera aurkezteak: "Emakumeon arteko topaketa", "Haurrek etxean birziklatzen ikasten dute", "Nola txertatu 2030 Agenda erakunde sozialen proiektuetan eta programetan" eta "3Dko maketen tailerra etorkin gazteentzat".
Esperientziaren izena	<u>#MásComercioJustoMásODS kanpaina (bidezko merkataritza gehiago, GJH gehiago)</u>
Erakundea	Bidezko merkataritzako estatuko koordinakundea – Kidenda
Esperientziaren deskribapena	Ekimen honen helburua bidezko merkataritzaren 10 printzipioak herritarrei ezagutaraztea da, eta nolatan den printzipio bakoitza mesedegarria NBEk 2030erako finkatu dituen GJHak erdiesteko bidean aurrera egiteko. Hala, herritarrek bidezko merkataritzaren mugimenduan inplikatzeko da asmoa, baita GJHak betetzeko lanean ere, beraz.
Esperientziaren izena	<u>Ekimen txikiak, eragin handiak</u>
Erakundea	Zabalketa elkarteak
Esperientziaren deskribapena	Argazki-erakusketa bat da, Getxoko herritarrek 17 GJHak betetzeko egiten duten ekarpena islatzen duena. Istorio txikiak dira, beren interes pertsonaletatik abiatuta baina espiritu ireki eta abegikorrarekin eredu eta konpromisoa diren pertsonen buruzkoak, besteentzat inspirazio-iturri izan daitezke eta.

Esperientziaren izena	<u>Hirugarren Sektore Sozialari, 2030 Agendari eta GJHei buruzko bideoak</u>
Erakundea	Sareen Sarea
Esperientziaren deskribapena	2030 Agenda eta GJHak Euskadin ezartze aldera EHSSk egin dituen eskaera eta ekarpenik garrantzitsuenetako batzuk jorratzen diren bideoak.
Esperientziaren izena	<u>ODSeando África kanpaina (GJHak Afrikan): 15. GJHa eta Wangari Maatahi, Dalanda Diallo, Hanna Deen</u>
Erakundea	Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional
Esperientziaren deskribapena	Afrikako emakumeentzako garapen jasangarrirako kanpainaren bideoak: ¡ODSeando África! (GJHak Afrikan) Hiru emakumeren istorioak aurkezten dira: Wangari Maatahi, Dalanda Diallo eta Hannan Deen.
Esperientziaren izena	<u>Zinema Ikusezinen Nazioarteko "Film Sozialak" Jaialdia</u>
Erakundea	KCD GGKEa – Kultura Communication y Desarrollo
Esperientziaren deskribapena	Bilbon egiten den Zinema Ikusezinen Nazioarteko "Film Sozialak" Jaialdiak sendatu eta eraldatzeko xedea duen zinea hedatzen du. Bere ibilbidean zehar, gizaki gisa sortzen zaizkigun erronketako batzuk ezagutu eta lantzeko istorio ugari azaleratu ditu.
Esperientziaren izena	<u>"Finantza etikoen koloreak" erakusketa</u>
Erakundea	Finantzaz Haratago
Esperientziaren deskribapena	Ekimen eraldatzaileak aurkezten dituen erakusketa, finantzen arloan beste mundu bat posible dela frogatzen dutenak.
Esperientziaren izena	<u>Argazki-erakusketa: "Emakumeak eta haurrak Afrikan"</u>
Erakundea	Jóvenes y Desarrollo
Esperientziaren deskribapena	JyDk Saharaz hegoaldeko Afrikan dituen proiektuen bidez, Afrikako emakumeek eta neskek GJHak erdiesteko egiten duten ekarpena erakusten da. Herritar guztientzako sentsibilizazio-materiala da, eta GJHei buruzko <i>roll up</i> ak dituzte osagarri. Erakundeak presentzia aktiboa duen Afrikako herrialdeetan, emakumeen eskubideak zer egoeratan dauden aditzera ematen da.
Esperientziaren izena	<u>Erakusketa: "Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Afrikako emakumeen egoera"</u>
Erakundea	Jóvenes y Desarrollo
Esperientziaren deskribapena	Giza esferako GJHei (1.tik 5.era bitartekoak) eta Afrikako emakumeen egoerari buruzko <i>roll up</i> en erakusketa. 14 urtetik gorakoentzat da, GJHen giza esfera ezagutzeko eta Afrikako emakumeen egoerarekin lotzeko, bost GJH horiek direla eta: pobrezia desagerraraztea, goserik ez, osasuna eta genero-berdintasuna.
Esperientziaren izena	<u>Ikusezina dena kontatzea: Palestinako emakume errefuxiatuen istorioak Garapen Jasangarrirako Helburuen ikuspegitik</u>
Erakundea	UNRWA Euskadi
Esperientziaren deskribapena	Soinu-kontakizunak sortzeko eta ondoren euskal herritarren artean podcast gisa zabaltzeko partaidetza-prozesua. Podcasten protagonistak Palestinako emakume errefuxiatuak dira, haien istorioak ikusezina eta isilaraziak izan ohi direlako.

Esperientziaren izena	<u>Eman minutu 1</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Urtero egiten den lehiaketa bat da. Zehazki, giza eskubideak defendatu, sustatu, aldarrikatu, dibulgatu eta kontzientziatzeko lana egiten duten ikus-entzunezko piezarik onenak saritzen dira, eta minutu bakarra irauten dute. 2021eko edizioan, 2030 Agendari eta GJHei buruzko minutu bakar bateko ikus-entzunezko piezarik onenak saritu ziren. Horrela, mundu ekitatibo, bidezko inklusibo, jasangarri eta planetarekiko errespetuzkoa eraikitzen laguntzen da, konpromiso pertsonalaren abiapuntutik eta errebeldiarekin, faktore sortzaile eta bideratzaile gisa.

Esperientziaren izena	<u>ResiliART arte-erakusketa</u>
Erakundea	UN Etxea eta ARTgia
Esperientziaren deskribapena	GJHak oinarritzat hartuta, UN Etxeak eta ARTgia Sorgune & Aretoak #ResiliART arte-deialdia jarri dute martxan. Ekimenaren helburua sorkuntza-jarduera bultzatzea eta artisten lanen sustapena eta hedapena erraztea da, mundu-mailako ResiliART mugimenduaren barruan kokatu den erakusketa eta hedapen birtualaren bidez.

Esperientziaren izena	<u>Flashmoba: "Aldatu planetaren norabidea... Mugitu GJHen alde".</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Flashmobak 2030 Agenda herritarrei aurkeztea eta 17 helburuak betetzea zeinen garrantzitsua den kontzientziatzea du helburu. Horretarako, UN Etxeak informazio-puntu bat jarri du interesa duten guztientzat, eta GJHei buruzko informazio-eskuorriak banatzen dituzte bertan. Horrez gain, 2030 Agendari buruzko <i>photocall</i> bat jarriko dute: argazkiak atera ez ezik, sare sozialetan ere partekatu ahalko dira, GJHen alde mugitzeko.

3.2. Jardunaldiak

Atal honetan, erakundeek egindako jardunaldiak, topaketak, ekitaldiak, etab. jaso dira, gai nagusia 2030 Agenda eta/edo GJHak izan baldin bada.

Esperientziaren izena	<u>2030 Agenda genero-berdintasunean ezartzea. Indarkeriarik gabeko bizitzen iraunkortasuna</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Ekimen honek aliantza feministak sortu eta indartu nahi ditu, giza eskubideen defendatzaileak babestu eta ikusgai egiteko. Izan ere, erasoak jasaten ari dira hainbat frontetatik, eta bizitza galdu ere egiten ari dira.

Esperientziaren izena	<u>Esperientzien jardunaldia: GJHak fiskalizatzea giza eskubideen esparruan</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa eta Batera 2030
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldiak gogoeta eskaintzen du, eta sentsibilizazioaren zein heziketa-pedagogiaren ildoko ekintzak bateratzen dira, giza eskubideak eta GJHak gazteei hurbiltzeko. Jardunaldian, eraldaketa jasangarriak lideratzeko, gizarte hobeen alde lan egiteko eta mundu hobe bat eraikitzeko ekarpenak egiteko eskatzen da.

Esperientziaren izena	<u>Topaketa: “Posible al da nazioarteko beste informazio bat? Palestinako emakume errefuxiatuez hitz egin dezagun”</u>
Erakundea	UNRWA Euskadi
Esperientziaren deskribapena	Topaketa proiektu honen barruan kokatzen da: “Bestelako narratibak eta GJHak sustatzea Palestinako emakume errefuxiatuen egoeratik abiatuta”.
Esperientziaren izena	<u>Nazioarteko jardunaldia: “Garapen jasangarria eta inklusiboa bultzatzea. 2030 Agendaren eta GJHen protagonistak”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldi honen helburua da 2030 Agenda eta GJHak eztabaidatu, aktibatu eta bultzatzea tokian-tokian eta mundu-mailan, euskal gizartearen konpromisoa eta inplikazioa errazteko mundu bidezkoago eta jasangarriago bat lortzeko lanean. Orobat, 2030 Agenda eta GJHak ezarri eta bultzatzeko lanean lagundu nahi da.
Esperientziaren izena	<u>Jardunaldia: “Giza eskubideak eta 2030 Agenda”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldian, eduki hauek landu dira: Giza eskubideen mundu-mailako erronkak datozen 20 urteetan; giza eskubideen aldarrikapen unibertuala eta GJHak; 2030 Agenda, giza eskubideetan aurrera egiteko bulkada.
Esperientziaren izena	<u>Jardunaldia: “Ura eta saneamendua izateko giza eskubidea Garapen Jasangarrirako Helburuen ikuspuntutik”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldian, eduki hauek landu dira: etorkizun erkide berria, 2030 Agenda; ura eta saneamendua edukitzeko giza eskubidea; ura eta saneamendua izateko giza eskubidea sustatzeko esperientziei eta erronkei buruzko mahai-ingurua, 2030 Agendaren esparruan.
Esperientziaren izena	<u>Jardunaldia: “Emakumeen eskubideak Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldiaren xedea GJHen eta emakumeen eskubideen arteko erlazioa ulertzea da, 2030 Agenda gauzatzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko modu eraginkor eta eraldatzailean. Emakumeen eskubideen ikuspegiarekin lan egitea funtsezkoa dela ulertzen da, benetako ekitatea lortuko badugu.
Esperientziaren izena	<u>Onlineko jardunaldia: “Giza eskubideak egia bihurtzea GJHen bidez, eta alderantziz (COVID-19aren osteko berreraikuntza)”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Giza eskubideen eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren arteko lotura aztertu eta horri buruz hausnartzen da, bi agendak modu integratuan eta elkar indartzuz gauzatzeko, giza garapen jasangarrirako funtsezko elementuak diren neurrian, eta inor atzean utzi gabe.

Esperientziaren izena	<u>Jardunaldia: “Berdea eta morea komunikazioan. Komunikazioa garapen jasangarrirako eta gizartea eraldatzeko”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldian, eduki hauek landu dira: komunikazioaren garrantzia garapen jasangarria lortzeko eta gizartea eraldatzeko; komunikabideen zeregina, 2030 Agendaren kasua; nola komunikatu genero-ekitatea?; tailer praktikoa: komunikazio eraginkorra eta eraldatzailea gizarte zibila aktibatzen.
Esperientziaren izena	<u>Onlineko jardunaldia: “Hurbilketa bat 2030 Agendatik Euskadiko talde kaltetuetara”</u>
Erakundea	Guztiok Batera sarea (UN Etxea, AMUGE, EGK, Munduko Landagunea, Mujeres en la Diversidad eta Gehitu)
Esperientziaren deskribapena	Ekitaldiaren helburua pertsona, kolektibo eta talde zaurgarriari ahotsa ematea izan da, lan-ildo inklusiboak, askotarikoak eta jasangarriak identifikatu eta proposatzeko asmoz, 2030 Agenda eta GJHak erdiesten laguntzeko.
Esperientziaren izena	<u>GJHei buruzko jardunaldia: “GJHak zuk uste duzuna baino hurbilago”</u>
Erakundea	EDE Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldiaren helburua GJHen eta 2030 Agendaren gainean hitz egin eta gogoeta egitea izan da, hobeto ezagutu ahal izateko, gure eguneroko bizitzara hurbiltzeko, zertarako balio duten eta zer esan nahi duten ulertzeko, zer zehaztaperen dituzten eta inor atzean utzi gabeko mundua eraikitzen nola lagun diezaguketen argitzeko asmoarekin.
Esperientziaren izena	<u>Jardunaldia: “Zure 2030 Agenda da”</u>
Erakundea	EDE Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldi honetan erakusten da 2030 Agendak konpromiso erkide eta unibertsala dakarrela berekin. Horretan, gazteek asko dute egiteko: Agenda ezagutzeko eta konektatuz, parte-hartzaileek irtenbide berritzaileak eta inklusiboak topatzeko eta garatzeko konpromisoa hartzen dute.
Esperientziaren izena	<u>2030 Agenda: Euskadiren eta bertako erakundeen zeregina mundu globalean</u>
Erakundea	Euskadiko GGKEen Koordinakundea
Esperientziaren deskribapena	2030 Agendaren bidez mundu bidezkoago bat lortzeko geltokiei buruzko grafismoa.
Esperientziaren izena	<u>Giza garapen jasangarrirako eta bakea eraikitzen dituzten ekintzei buruzko jardunaldia</u>
Erakundea	Asocolvas – Euskadiko kolonbiarren elkarte
Esperientziaren deskribapena	Asocolvasen esku hartzeko tailerren eta jardunaldien ziklo bat antolatu zuen 2030 Agendari buruzko begirada kritiko eta eraikitzaile bat eratzen laguntzeko. Munduko hainbat bazterretako erreferentziako pertsonen parte hartu zuten, eta haien ekarpenek benetan eraldatzailea izango den 2030 Agenda baterako bidea erakusten dute.

Esperientziaren izena	<u>Jardunaldia: “Bauhausetik GJHetara”</u>
Erakundea	eCivis – Herritar aktiboak sustatzeko elkarte
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldiaren helburua Europako Bauhaus berria ezagutzera ematea izan zen, GJHekin lotuta.

Esperientziaren izena	<u>Proiektua: “Jasangarria naiz”</u>
Erakundea	eCivis – Herritar aktiboak sustatzeko elkarte
Esperientziaren deskribapena	“Jasangarria naiz” proiektuaren bidez, jasangarritasuna, Itun Berdea eta GJHak zer diren azaldu nahi zaie herritarrei. Horretarako, solasaldiak eta topaketak antolatu dituzte testuinguru horretan lan egiten duten pertsona eta erakundeekin. “Jasangarria naiz” zigiluaren definizioa lan horren emaitza izan zen. Zehazki, jasangarritasunarekin (GJHen esparruan) eta herritarrekin konpromisoa hartzen duten tokian tokiko saltoki, erakunde eta pertsonen sare bat bultzatu nahi dute.

Esperientziaren izena	<u>Jardunaldia: “2030 Agenda eta gizartea”</u>
Erakundea	Harresiak Apurtuz
Esperientziaren deskribapena	Jardunaldiaren xedea intersektionalitatean oinarritutako begirada partekatatu bat sortzea izan zen, 2030 Agendaren esparruan GJHak betetzeko.

Esperientziaren izena	<u>Jardunaldia: “Pertsonak konektatu, arrakalak gainditu”</u>
Erakundea	IRSE Araba eta Saregune
Esperientziaren deskribapena	IRSE Araba eta Saregune 10. GJHaren trakzio-erakundeak dira, eta, zeregin horren baitan, arrakala digitala murrizteko jardunaldi hau antolatu zuten.

Esperientziaren izena	<u>Webinar-jardunaldia: “Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren erronkaren aurrean”</u>
Erakundea	Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia
Esperientziaren deskribapena	Webinar-jardunaldiaren xedea gogoetak, helburuak eta ibilbideak partekatzea izan zen. Era horretan, EHSSk 2030 Agendaren erronkaren aurrean izan dezakeen zeregina hobeto ezagutzeko elementuak lortu nahi ziren.

3.3. Jarduerak/tailerrak

Atal honetan, erakundeek noizean behin egindako aurrez aurreko heziketa-jarduerak bildu dira, 2030 Agenda eta GJHak lantzeko.

Esperientziaren izena	<u>Nazioarteko artista gazteak GJHen alde</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Ekimenaren helburua arte-adierazpenak, dantza, antzerkia, performancea, grafitiak eta rapa Euskadiko herritarrekin partekatzea da. 17 GJHetan gizartearen barruan landu beharreko esferak daude: klima-aldaketa, kontsumo jasangarria, desberdintasun ekonomikoa, justizia distributiboa eta bakea, besteak beste. Artearen bitartez, GJHei begiratu nahi zaie, eta herritarrek hobeto ezagutzea eta neurri handiagoan inplikatzeko nahi da.

Esperientziaren izena	<u>GJHak artetik kontatzea</u>
Erakundea	UNRWA Euskadi
Esperientziaren deskribapena	Proiektuaren helburua lau udalerritan herritar global kritikoak eta gaituak sustatzea da. Hartara, estereotipoak eraldatu eta GJHein konpromisoa hartu ahalko da, ingurumenarekin lotutako arazoak eta Palestinako emakume errefuxiatuen eskubideen urraketa kontuan hartuta.

Esperientziaren izena	<u>Estereotiporik gabeko mihiseak: Palestinako emakume errefuxiatuen errealitateak marraztea</u>
Erakundea	UNRWA Euskadi
Esperientziaren deskribapena	Proiektu honen baitan egindako arte-tailerra da: "Artearekin heztea: Palestinako emakume errefuxiatuen eskubideak, ingurumen-arazoak eta GJHak lantzea". 2021ean egin zen Gipuzkoan: heziketa-saioak antolatu ziren EHUko HEFAn, eta arte-tailer bat Tabakaleran, artearekin lotura dutenentzat.

Esperientziaren izena	<u>Euskalerriko Eskautak GJHen alde</u>
Erakundea	Euskalerriko Eskautak
Esperientziaren deskribapena	Euskalerriko Eskautak eta Nafarroako Eskaut Katolikoak egiten ari diren ekintzetako batzuen aurkezpena.

Esperientziaren izena	<u>2. GJHari buruzko marrazkien eta mikrokontakizunen eskola-lehiaketa: goserik ez</u>
Erakundea	FISC cooperación y desarrollo
Esperientziaren deskribapena	2. GJHari buruzko marrazkien eta mikrokontakizunen eskola-lehiaketa bat da: hots, gosea desagerraraztea, elikadura-segurtasuna lortzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea landu nahi da. Ikasleak eta gazteak elikatzeko eskubideari eta goseari buruz kontzientziatzea da helburua, munduko biztanleriaren zati handi bat egoera horretan dagoelako hainbat arrazoiengatik, baita hemen ere, gure hirietan.

Esperientziaren izena	<u>GJHak sustatzeko entzute-gunea</u>
Erakundea	EDE Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	GJHak eta 2030 Agenda lantzeko belaunaldiarteko jardunaldia: adin eta ikuspegi desberdinak dituzten pertsonen entzun, elkarrizketan jardun eta parte hartzeko gunea. Jardunaldia belaunaldiartekoa izan zen, eta, hartara, aniztasuna aitortzea eta belaunaldi desberdinetako ikuspegiak, gaitasunak eta aktiboak integratzea sustatu zen. Hala, adin-tarte desberdineko taldeek elkarrizketan jarduteko eta kohesio soziala handitzeko lagundu nahi zen.

Esperientziaren izena	<u>Sormenezko topaketak haurrekin, GJHak indartzeko Euskadin</u>
Erakundea	Asocolvas – Euskadiko kolonbiarren elkarte
Esperientziaren deskribapena	Proiektuaren esparrua ikastetxeetan gertatzen diren gatazkei eta haurrek hautematen dituzten moduari buruz sentsibilizatzeko ariketa bat izan zen. Emaita 14 kontakizun labur izan ziren, euskaraz eta gaztelaniaz, eta sei podcast. Haietan, kontakizunak eta prozesuari buruzko gogoetak entzun daitezke haien ahotsen bidez.

Esperientziaren izena	<u>Parte hartzeko tailerra: “UR-tanta guztiak garrantzitsuak dira”</u>
Erakundea	Asocolvas – Euskadiko kolonbiarren elkarte
Esperientziaren deskribapena	Tailerrean, jolasaren bidez hezi nahi da, ezagutzak elkarrekin sortuz eta transferituz. Gidariak adituak dira uraren kudeaketan eta parte hartzeko metodologietan.

Esperientziaren izena	<u>Ikus-entzunezko tailerra: “Jarri arreta GJHetan”</u>
Erakundea	Entreamigos – Lagun Artean
Esperientziaren deskribapena	2030 Agendari buruzko ikus-entzunezko sorkuntza-tailer bat da: “Jarri arreta GJHetan”. Tailerraren helburua Getxoko gazteek GJHei buruz ikastea eta bideoak eta/edo ikus-entzunezko sorkuntza-lanak egiten ikastea izan zen. Hartara, film laburren Getxo GaztExpress lehiaketan parte hartzeko aukera izango zuten.

Esperientziaren izena	<u>Tailerra: “GJHen artistak”</u>
Erakundea	Entreamigos – Lagun Artean
Esperientziaren deskribapena	GJHetan, helburuetan eta xedeetan sakontzeko tailerrak, Getxon erakustekoak ziren arte-oholetan islatzeko.

Esperientziaren izena	<u>"Odesees ART" Portugaleten, Etxebarrin eta Galdakaon</u>
Erakundea	Sartu Gaztaroa
Esperientziaren deskribapena	Parte hartzeko ekimen artistiko eta ludikoa belaunaldi guztietako jendearentzat, herritarrek 2030 Agendako GJHak gehiago ezagutzeko eta konpromisoa hartzeko.

3.4. Prestakuntza

Atal honetan, 2030 Agendaren eta/edo GJHen askotariko alderdietan sakontzeko prestakuntza-ekintzak jaso dira.

Esperientziaren izena	<u>Ikastaroa: “Genero-berdintasuna eta giza eskubideak gure mundua eraldatzeko - GJHak”</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Ikastaroan, genero-ikuspegia aztertzen da, eta, halaber, emakume-talde jakin batzuek nolatan jasaten dituzten bereizketa ugari. Bestalde, egoera horiei aurre egiteko ekintza zehatzen berri ematen da.

Esperientziaren izena	<u>Ikastaroa: “Kulturarteko bizikidetzeta eta herritartasun globala sendotzea giza eskubideen eta GJHen esparruan”</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Ekimen horren xedea giza eskubideak eraginkortasunez ezartzen laguntzea da. Horretarako, osorik ezagutzea da helburua, eta, hortaz, zenbait herrialde eta errealitatetako profesionalak parte hartzen dute, tokian tokiko eta mundu-mailako ikuspegia lortzeko.

Esperientziaren izena	<u>Onlineko ikastaroa: “Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari buruzko sarrera. Pertsona eta planetarako plana”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Ikastaroa hiru moduluk osatzen dute: <ul style="list-style-type: none"> I. modulua: 2030 Agendaren aurrekariak. NBEren sistema. Milurtekoko Garapen Helburuak. II. modulua: GJHak. 2030 Agenda eraikitzea. GJHak. III. modulua: 2030 Agenda zenbait ikuspegitatik. Generoa. Giza eskubideak. Kultura. Hezkuntza. “Inor atzean utzi gabe”.
Esperientziaren izena	<u>Onlineko ikastaroa: “2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak. Garapen jasangarrirako nazioarteko agenda berria”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Ikastaroaren helburuak: <ul style="list-style-type: none"> Ikasleei prestakuntza ematea garapen jasangarrirako nazioarteko agenda berriari buruz. 2030 Agenda gako-ikuspegietatik aztertzea: giza eskubideak, generoa eta kultura. Eztabaidatzeko, pentsamendu kritikoa sortzeko eta iritziak trukatzeko gune bat sortzea erraztea. Profesionalek eta boluntarioek edukiak eta diskurtsoa beren lantokietan txerta ditzaten erraztea.
Esperientziaren izena	<u>Onlineko ikastaroa: “2030 Agenda: sektore anitzeko ikuspegia eta ekintzarako proposamenak”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Ikastaroaren helburuak: <ul style="list-style-type: none"> 2030 Agendari buruzko ezagutza handiagoa eskaintzea. Intzidentzia eraginkorragoa eta ezartzearekin lotuagoa bideratzeko gaitasunak sortzea. Euskadiko herritarrek eta Hegoaldeko herritarrek eztabaidatzeko, pentsamendu kritikoa sortzeko eta iritziak trukatzeko gune bat sortzea erraztea, 2030 Agendari buruzko tresnak lortu, ezagutzak eskuratu eta sinergiak zein sarean eraikitzeko aukerak sortzeko.
Esperientziaren izena	<u>Onlineko ikastaroa: “2030 Agenda eta giza eskubideak. Hurbilketa talde kaltetuetara”</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Ikastaroaren helburuak: <ul style="list-style-type: none"> 2030 Agendari eta giza eskubideei buruzko ezagutza ematea, Euskadin dauden talde kaltetuen errealitatera hurbilduz. Eztabaidatzeko, pentsamendu kritikoa bideratzeko eta iritziak trukatzeko gune bat sortzea erraztea, 2030 Agendari eta zeharkako ikuspegiari buruzko tresnak, ezagutzak eta jardunbide hobeak lortzeko.
Esperientziaren izena	<u>EHUko Udako Ikastaroa: “Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) kontabilitate sozialaren bidez”</u>
Erakundea	Lantegi Batuak
Esperientziaren deskribapena	Lantegi Batuak aurkezpena EHUko Udako Ikastaro honetan: Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) kontabilitate sozialaren bidez

Esperientziaren izena	<u>La Batidora 2021: GJHak Portugaleteko erakunde sozialen kudeaketan txertatzea COVID-19aren osteko krisitik suspertzeko</u>
Erakundea	Manuel Calvo Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Lan-esperientzia honetan aztertzen da nolakoa izan den 2030 Agenda eta GJHak zeharkako lan-tresna gisa erabiltzeko esperientzia. Era horretan, Portugaleteko erakunde sozialei lagundu nahi zaie beren helburuekin eta laneko kolektiboen jarduera nagusiarekin konektatzen.
Esperientziaren izena	<u>Formakuntza komunitarioa:5. GJHa, berdintasuna</u>
Erakundea	AGISAS – Integratzaile sozialen eta eragile soziokulturalen Gipuzkoako elkarte
Esperientziaren deskribapena	Genero-berdintasuna jorratzen duen 5. GJHarri buruz hausnartzeko prestakuntza-tailerra.
Esperientziaren izena	<u>2030 Agendari eta GJHei buruzko prestakuntza</u>
Erakundea	UN Etxea, Baketik, EDE Fundazioa, Alboan
Esperientziaren deskribapena	2030 Agendari buruzko dibulgazio-prestakuntzaren gaineko albisteak. Herritar guztientzat, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sustatuak eta UN Etxeak, Baketik, Geuzek, EDE Fundazioak, Alboanek eta Gazteriaren Batzordeak emandakoak.
Esperientziaren izena	<u>2030 Agenda Afrikako garapen jasangarrirako</u>
Erakundea	Fundación Jóvenes y Desarrollo
Esperientziaren deskribapena	Afrikako neska eta emakumeen egoerari buruzko prestakuntza. Aisialdiko begiraleentzako prestakuntza-ekintzak, San Frantzisko Xabier parrokiako gazteen taldeko 100 neska-mutilentzako sentsibilizazio-tailerrak, argazki-erakusketak Salburuako eta Judimendiko gizarte-etxeetan eta solasaldi ireki bat egin dira.
Esperientziaren izena	<u>Bidezko merkataritzari eta GJHei buruzko prestakuntza-modulua</u>
Erakundea	Kidenda
Esperientziaren deskribapena	Bidezko merkataritzak Milurtekoko Garapen Helburuak betetzen laguntzeari buruzko prestakuntza-modulua.
Esperientziaren izena	<u>GJHetara hurbildu eta erakundeetan modu praktikoan txertatzeko saioa</u>
Erakundea	La Tercera Pata
Esperientziaren deskribapena	Saioa, helburuen arabera: <ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntzako hurbilketa praktikoa GJHei eta 2030 Agendari Euskadin. • Aurrediagnostikoa, erakundeetan 5., 8., 9. eta 12. GJHak txertatzeko tresna erabiliz. • Ariketa praktikoa GJHak ezartzeko tresnarekin, erakundeetan erabil daitezkeen ekintzak eta adierazleak identifikatzeko.

Esperientziaren izena	<u>Onlineko ikastaroa: “Giza eskubideak, krisi humanitarioak eta errefuxiatuak”</u>
Erakundea	Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional
Esperientziaren deskribapena	Besteak beste, ikastaroak helburu hau du: Giza eskubideei eta GJHei buruzko nazioarteko eta eskualdeetako tresnetan sakontzea.

Esperientziaren izena	<u>Onlineko ikastaroa: “Migrazioak eta klima-aldaketa 2030 Agendan: XXI. menderako erronka berria”</u>
Erakundea	Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional
Esperientziaren deskribapena	Ikastaroaren helburua klima-aldaketaren ondorioei, desplazamenduei eta migrazio masiboari buruz sentsibilizatzea da. Orobat, ikusi nahi da nola kokatzen den giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidearen barruan, eta zer estrategia global dauden egoera horiek arintzeko eta pertsonarik zaugarrienen eskubideak bermatzeko, 2030 Agendaren ikuspegitik.

Esperientziaren izena	<u>Onlineko ikastaroa: “Migrazioa 2030 Agendan: garapen jasangarria lortzeko tresna bat”</u>
Erakundea	Euskadiko GGKE-en Koordinakundea eta Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional
Esperientziaren deskribapena	Ikastaroak migratzaileen, emakumeen eta gizonen giza eskubideak eta aukeraberdintasuna ezagutzea du helburu, eta exijitzeko ahalegina sustatzea, tokian-tokian, estatu-mailan eta nazioartean. Horretarako, babes eta aldarrikapenerako tresnak ematen dira, eta kolektiboen zein talde sozialen partaidetza erreala eta eraginkorra bermatzen duten mekanismoak sortzen laguntzen da.

Esperientziaren izena	<u>Prestakuntza-mintegia: “Ez utzi inor atzean. Babesa ematearen erronkak 2030 Agendan”</u>
Erakundea	UNHCR-ACNUR.
Esperientziaren deskribapena	Mintegiaren helburua gogoetarako espazio parte-hartzailea izatea da. Galderen konplexutasunari erantzun nahi zaie, ikuspegi kritiko eta eraldatzaile batetik: zein dira 2030 Agendaren erronkak eta nola izan dezakegu eragina tokian tokikoan, mundu-mailako erronkei erreparatuz eta gizarte bidezko, solidario eta integratzaileagoak eraikitzeko?

Esperientziaren izena	<u>EHUko uda ikastaroa: “Kokreazioa eta gizarte-berrikuntza, aurrera egiteko garapen jasangarrian eta 2030 Agendaren helburuetan”</u>
Erakundea	KCD GGKEa – Kultura Communication y Desarrollo
Esperientziaren deskribapena	Topaketaren ardatz tematikoak hauek izan ziren: komunikazioa, eraldaketa sozialerako tresna gisa; ekonomia sozial eta solidarioa, garapenerako eta ongizaterako aukera gisa; eta partaidetza eta aliantzak sortzea, mundu-mailako arazoei tokian tokiko irtenbideak bilatzeko.

Esperientziaren izena	<u>Kultura, komunikazio eta garapeneko nazioarteko 8. topaketa: garapen jasangarrirako komunikazioa</u>
Erakundea	KCD ONGD - Kultura, Communication y Desarrollo
Esperientziaren deskribapena	Topaketak helburu hauek izan zituen: <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa sustatzea, garapen jasangarrirako estrategia gisa. • Tokian-tokian eta mundu-mailan kausak eta ondorioak lotzeari buruz hausnartzea. • Komunikazioaren presentzia indartzea, garapenerako eta eraldaketa sozialerako estrategia gisa. • Esperientziak eta estrategiak trukitzea elkarrekin ikasteko bide gisa.

Esperientziaren izena	<u>Kultura ezberdinen arteko elkarbizitzari eta generoari buruzko tailerra</u>
Erakundea	APSIDE Euskadi – Euskadiko Psikopedagogi Elkarte
Esperientziaren deskribapena	Tailerrean, arreta gai hauetan jartzen da: <ul style="list-style-type: none"> • Errefuxiatuak eta immigrazioa (bideoekin). • Globalizazioa: Munduan aberastasuna bidegabeki banatuta dagoela ohartzea. • Egoera horren aurrean: Garapen jasangarria eta GJHak, bereziki 1.a (pobrezia desagerraraztea) eta 5.a (genero-berdintasuna). • Rol-jokoa, aurretik landutako edukia antzezlan baten bidez jorratzeko. • Zer egin dezaket kulturarteko elkarbizitzaren alde, etorkin eta errefuxiatuei harrera egin eta GJHak ezartzeko? • Tailerra postet batzuekin ixtea.

Esperientziaren izena	<u>Boluntariotzaren ekarpena GJHei</u>
Erakundea	Batekin
Esperientziaren deskribapena	Informazioa eman eta boluntarioen ekintza eta GJHak lerrokatzeko prestakuntza-pilula.

3.5. Gidak

Atal honetan, argibide zehatzak jasotzen dituzten argitalpenak daude, GJHak hainbat jarduerarlotan lantzeko edo txertatzeari buruz hausnartzeko.

Esperientziaren izena	<u>GJHak eta haurrak: zer egin dezake zure enpresak?</u>
Erakundea	EAEko UNICEF
Esperientziaren deskribapena	Gida honetan, GJH bakoitzak haurrentzat dakartzan inplikazioei buruzko oinarritzko informazioa ematen zaio sektore pribatuari. Era berean, enpresa batek haurren eskubideak GJHen estrategian txertatzeko ideiak eskaintzen dira.

Esperientziaren izena	<u>Haur eta nerabeen partaidetzarako gida. Dinamikak eta baliabideak eskubideen ikuspegitik</u>
Erakundea	EDE Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Parte-hartzearekin zuzenean lotuta dauden helburuez gain, gida honetan jasotzen dugun proposamenaren asmoa esperientzia parte-hartzaileak 17 GJHein lotzea da. Horretarako, saio bakoitzean elkarriketa-gune bat proposatzen da, kasu bakoitzean lantzen ari diren helburu edo helburuak taldeka aztertzeko.

Esperientziaren izena	<u>Gida: 2030 Agenda eta Desgaitasuna: begirada bat giza eskubideen ikuspegitik</u>
Erakundea	Elkartu – Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Esperientziaren deskribapena	Gida honetan, desgaitasuna duten pertsonen konbentzioa eta GJHak aurkezten dira, bakoitza bere eremuan. Halaber, bi tresnen konparaziozko analisisian sakontzen da, eta elementu, helburu eta berme erkideak zehazten dira.

3.6. Baliabide pedagogikoak

Atal honetan, 2030 Agenda eta GJHak lantzeko heziketa-baliabideak bildu dira: materialak, jolasak, jarduerak, unitate didaktikoak eta bideoak, besteak beste.

Esperientziaren izena	<u>GJHen maleta feminista</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	GJHak lantzeko maleta feminista baliabide metodologiko eta pedagogiko bat da, GJHak aztertu, eztabaidatu eta pentsatzeko, hala hezkuntza formalean nola ez-formalean.

Esperientziaren izena	<u>Euskape 2030: GJHak lurreratzen</u>
Erakundea	EAEko UNICEF
Esperientziaren deskribapena	<i>Escape room</i> ibiltari bat da, Bilboko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei 2030 Agendaren eta GJHen gaineko prestakuntza emateko, arreta hauren artean jarriz batik bat.

Esperientziaren izena	<u>Pertsonak: denak berdinak, denak desberdinak</u>
Erakundea	Todas Juntas – Guztiok Batera
Esperientziaren deskribapena	Heziketa-proposamen honen hartzailak Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleak dira, eta helburua eskubideak, inklusioa, aniztasuna eta desberdintasunak murriztea lantzea da, aniztasunari haurtzarotik eta nerabezarotik balioa ematen dioten herritarrak sortzen laguntzeko, 2030 Agendaren esparruan.

Esperientziaren izena	<u>Gure mundua eraldatzeko 17 helburu</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	2030 Agenda osatzen duten GJHen berri ematen duen erakusketa birtuala, mundu-mailako gaiak jorratzen dituzten irudietan berrinterpretatuak; besteak beste, gosearen aurkako borroka, osasuna, jasangarritasuna, kontsumoa, bakea eta genero-berdintasuna. Erakusketarekin batera, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko ikasleentzako bi unitate didaktiko prestatu dira euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, garapen jasangarriari begirako kalitate oneko hezkuntza sustatze aldera, eta 2030 Agenda lortzeko ezagutzak garatzen laguntze aldera.

Esperientziaren izena	<u>Garapen Jasangarrirako Helburuak ikasgelan. Zu ere parte zara!</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	NBERen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda osatzen duten 17 GJHak DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei gerturatzeko unitate didaktikoa.

Esperientziaren izena	<u>Samantha tantaren jokoak. 6. GJH-2030 misioa</u>
Erakundea	Alboan
Esperientziaren deskribapena	Samantha tantaren jokoak oso erraza eta dibertigarria da, eta antzararen jokoaren antza du. Helburua azken laukira iristea da, 6. GJH-2030 laukira, hain zuzen ere. Zehazki, Garapen Jasangarrirako 6. Helburua da: lur planetako pertsona guztiok ura eta saneamendua edukitzea 2030erako.

Esperientziaren izena	<u>Beti Berdea Bizkaia Maitea</u>
Erakundea	Zabalketa
Esperientziaren deskribapena	Aisialdian ingurumen-heziketa lantzeko jardueren gida. Gaur egun, ingurumen-heziketa EAEko ikastetxe askotan txertaturik dago zeharka, Eskolako 21 Agenda programaren eta 2030 Agendaren bidez. Bizkaiko zenbait aisialdi-elkartetan egindako jarduera guztiak bildu dira, baita erreferentziak eta baliabideak ere, beste elkarte, erakunde edo interesdun batzuek ingurumenarekin lotutako gaiak beren lanean txertatu eta landu ahal izateko.

Esperientziaren izena	<u>Garapen Jasangarrirako 17 Helburu Afrikarentzat eta munduarentzat</u>
Erakundea	Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional
Esperientziaren deskribapena	GJHak zabaldu eta haiei buruz sentsibilizatzeko tresna bat da: <ul style="list-style-type: none"> Afrikako gizarteak erantzukizun partekatua bilatzen duen lehentasunezko ardatz batean kokatzeko, mundu-mailako erronka horren bidean aurrea egin eta, azkenean, erdiesteko. Etorkizunerako garapenaren ikuspegia osatzeko topagune eta adostasun gisa, eta nola ikuspegi horren jomuga giza eskubideen, berdintasunaren eta jasangarritasunaren printzipioak izan behar diren.

Esperientziaren izena	<u>TAU kanpainak: Bakea eta GJHak // Osasuna eta GJHak // Desberdintasuna eta GJHak // Klima-aldaketa eta GJHak</u>
Erakundea	TAU Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Material eta baliabideak, begirada frantziskanotik lan egiteko: <ul style="list-style-type: none"> Bakearen aldeko eta indarkeriarik gabeko kultura, 16. GJHaren harira: gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak sustatzea. Osasuna, 3. GJHa dela eta: osasuna eta ongizatea. Desberdintasuna, 10. GJHarekin lotuta: desberdintasunak murriztea. Klima-aldaketa, 7. GJHari dagokionez: energia irisgarria eta ez kutsagarria. 13. GJHa: klimaren aldeko ekintza. Eta 12. GJHa: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.

Esperientziaren izena	<u>GJHak: elikagaiak eta ura</u>
-----------------------	----------------------------------

Erakundea	Manos Unidas
Esperientziaren deskribapena	Jarduera hauen bidez, funtsezko bi gai lantzen dira: elikagaiak eta ura. Pertsona guztien eskubideak diren heinean, helburuak lortzeko lanean jarriko da arreta. Zehazki, 1., 2., 3., 6., 12., 14. eta 15 GJHak dira. Edonola ere, biri erreparatzen zaie batez ere: 2. GJHari (goserik ez) eta 6. GJHari (ur garbia eta saneamendua). Helburu horien bidez, elikagaien inguruko desberdintasunak jorratu daitezke, eta azpimarratu elikagaiak xahutzea pertsona askok elikagaiak lortzea eragozten duen oso faktore garrantzitsu bat dela. Bestalde, kontsumitzaile gisa dugun erantzukizunari buruz hausnartzen da.

Esperientziaren izena	<u>GJHei buruzko aplikazioa</u>
Erakundea	Manos Unidas
Esperientziaren deskribapena	Plataformaren xedea GJHei giza eskubideekin duten loturari buruzko lana erraztea da. Era berean, plataformak erakusten du GJHak jendearen bizitza hobetu eta desberdintasunaren kontra borrokatzeko tresna izan daitezkeela.

Esperientziaren izena	<u>GJH antzara-jokoa</u>
Erakundea	Elkarbanatuz
Esperientziaren deskribapena	Antzara-joko klasikoaren bitartez, GJHak eta horien arteko interrelazioak ezagutzera eman eta sustatu nahi dira. Orobat, migrazioak munduaren garapenari dakartzkion onurak agerian jarri nahi dira.

3.7. Programak eta/edo proiektuak

Atal honetan, EHSSko erakunde batzuek egindako programa edo proiektu handiak jaso dira, 2030 Agenda eta GJHak hainbat arlotan eta zeharka lantzeko bideratu dituztenak. Kasu batzuetan, proiektuak zenbait erakundek batera garatu dituzte.

Esperientziaren izena	<u>2030 Agenda sustatzea eta SUEak txertatzeko ekintza</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Besteak beste, euskal gizarte zibileko erakundeek tokian tokiko gaitasunak indartzea du xede, 2030 Agendari eta GJHei buruz kontzientziatzeko estrategien bitartez, sexu-osasunaren eta sexu- zein ugalketa-eskubideen (SUE) lehenetsuneko xedeetan lan eginez eta pertsonak sexuagatik ez diskriminatzeke lanean parte hartuz.

Esperientziaren izena	<u>Nazioarteko laguntza- eta elkartasun-estrategiak 2030 Garapen Agendaren esparruan</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Proiektuaren helburua herritarren kontzientzia kritikoa areagotzea da, bereziki Arabako gazteena. Zehatz-mehatz, pobrezia jatorriari, kausei eta ondorioei buruzko kontzientzia piztu nahi zaie, dimentsio ugariko begirada batetik eta genero-ikuspegitik. Halaber, nazioarteko elkartasunaren garrantzia eta 2030 Agendaren esparruan martxan jarri beharreko estrategiak landu nahi dira.

Esperientziaren izena	<u>Batera 2030 – 2030 Agendaren begiratoki feminista</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Ekimen feminista, 17 GJHak eta 2030 Agendak emakume eta nesken bizitzan duen inpaktua ezagutzeko eta jarraipena egiteko.
Esperientziaren izena	<u>Ertzean proiektua</u>
Erakundea	Grupo SSI, Ellacuría Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Berrikuntza sozialeko proiektu bat da, 2030 Agendarekin lotutako erronkei irtenbideak bilatzeko xedea duena, Euskadin oro har eta Bizkaian bereziki. Asmoa Bizkaiko lurraldean aldaketa bat eragitea da. Proiektuak zaintzan eta etxeko enpleguan dihardutenen egoera zailean jartzen du arreta, batez ere atzerritarrak direnen kasuan.
Esperientziaren izena	<u>Guztiok batera sarea</u>
Erakundea	UN Etxea, Amuge, Mujeres en la diversidad, EGK, Munduko Landagunea, Gehitu, Oscarte ONGD, Amesten, Unicef, Bidaya, Koop SF34, Sare Berdeak
Esperientziaren deskribapena	Helburu bera duten gizarte zibileko askotariko erakunde talde bat da. Zehazki, beste erakunde batzuekin eta administrazio publikoekin lan egin nahi dute gizarte bidezkoagoa eta ekitatiboagoa lortzeko, ingurumena eta giza eskubideak errespetatuz, bereziki emakumeenak eta Euskadiko eta planeta osoko talde kaltetuak. Erreferentzia NBEren Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda da; bereziki, “inor atzean utzi gabe” printzipioa.
Esperientziaren izena	<u>Nik ere aldaketa ahalbidetzen dut</u>
Erakundea	Gaude
Esperientziaren deskribapena	Elkarlaneko ekintzak, NBEren Garapen Jasangarrirako Agendaren eta Euskadi Basque Country 2030 Agendaren baitan identifikatutako puntuetako batzuetan. Besteak beste, hondartzak garbitzea, animaliak babestea, lehiaketa solidarioak eta bisitak egoitzetara eta elikagai-bankura.
Esperientziaren izena	<u>Bihotzondo eraturik</u>
Erakundea	Caritas Bizkaia
Esperientziaren deskribapena	Bihotzondo eraturik Caritas Bizkaiaren programa bat da, eta gazteak elkartasunaren, justizia sozialaren eta kristau humanismoaren balioetan sentsibilizatzea sustatzen du. Hainbat ikastetxerekin koordinatuz gauzatzen da. Era berean, garapen jasangarriaren kontzeptua ezagutzera ematen da eta jarduerak NBEren ikuspegi globalean kokatzen dira, GJHetan sakontzeko asmoz. Hori guztia 2030 Agendaren esparruan lantzen da.
Esperientziaren izena	<u>Auzoko bihotzak proiektua</u>
Erakundea	Peñascal Kooperatiba
Esperientziaren deskribapena	Zurgintzako lanbide-heziketako erdi-mailako graduiko ikasleek ikaskuntza- eta zerbitzu-jarduera bat egin dute: hiriko txoko bat hondakin plastikoekin lehengoratztea. Ekintza horiek heziketa-proiektuak dira; ikaskuntza eta konpromiso soziala uztartzen dituzte inguruko benetako beharretan lan eginez. Lana Eskolako 2030 Agendaren eta GJHekiko konpromisoaren testuinguruan egin da. Zehatz-mehatz, 11. GJHarekin lotu da: hiri eta komunitate jasangarriak edukitzea, eta inklusiboak, seguruak eta erresilienteak.

3.8. Argitalpenak

Atal honetan, EHSSko erakundeek 2030 Agendari eta GJHei buruz egindako dokumentuak, txostenak, monografiak, dosierak artikulak edo sarrerak bildu dira.

Esperientziaren izena	<u>2030 Agendaren esparruan egindako "Indarkeria Elkar Gurutzatuak" nazioarteko jardunaldiaren sistematizazio laburtua</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Dokumentuan, jardunaldiaren sistematizazio laburtua jaso da. Zehazki, gai hauek landu ziren jardunaldian: indarkeria elkar gurutzatuak, fundamentalismo politiko eta erlijiosoen aurrerapausoak, sexu-indarkeria eta neska zein nerabeen amatasun behartuak, sexu-esplotazio komertziala, emakumeen eskubideak Espainian eta Latinoamerikako hainbat herrialdetan eta 2030 Agenda eta GJHak ekintza feministarako. Bertako eta nazioarteko adituek parte hartu zuten.
Esperientziaren izena	<u>Emakumeen eskubideak 2030 Agendan</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Dokumentuaren helburua galderak deskorapilatzea eta erantzunak ematea da. Adibidez, galdera hauek direla eta: Zer erlazio dago emakumeen eta garapen jasangarriaren artean? Nola daude lotuta 2030 Agenda eta giza eskubideak? Nola islatzen dira emakumeen eskubideak 2030 Agendan? Zer ekarpen egiten diete emakumeen mugimenduek 2030 Agendari? Feminismoari 2030 Agendak balio al dio? Horretarako, 2030 Agenda emakumeen eskubideen ikuspegitik aztertuko dugu.
Esperientziaren izena	<u>Aukera berri bat denontzat: 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak Euskadin</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Argitalpen honetan erakusten da Euskadik konpromiso irmoa duela garapen jasangarriarekin. Esate baterako, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia 2020, Tokiko 21 Agendaren hedapen zabala eta giza garapen eta hazkunde jasangarrirako Euskadi 2020 horren adibide dira.
Esperientziaren izena	<u>Gure mundua eraldatzea: errealitatea ala fikzioa?</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari buruzko gogoetak.
Esperientziaren izena	<u>Eskailera berri bar. Kultura eta garapen jasangarria</u>
Erakundea	UN Etxea
Esperientziaren deskribapena	Argitalpen honetan, 2030 Agendari buruzko kontu batzuk argitu nahi dira: Zer da eta zer ez da? Zergatik behar da 2030 Agenda? Mundua krisian al dago? Besteak beste, gai hauek jorratzen dira: 2030 Agenda Euskadi kontratu soziala, 2030 Agendarekiko konpromisoaren adibide praktikoak, 2030 Agendaren alderdi kulturala (kultura- eta sorkuntza-sektoreak jasangarriak izatea) eta erreferentziak, informazio-iturriak eta aukerak.

Esperientziaren izena	<u>2030 Agenda eta seme-alabak dituzten familiak</u>
Erakundea	Hirukide
Esperientziaren deskribapena	Txostenean erakutsi nahi da zer eginkizun duten familiek 2030 Agendan; bereziki, Euskadiko familien eginkizuna Euskadi Basque Country 2030 Agendan.

Esperientziaren izena	<u>Todas Juntas – Guztiok Batera txostena</u>
Erakundea	Todas Juntas – Guztiok Batera sarea
Esperientziaren deskribapena	<p>Txostenean, ekarpenak egiten zaizkio garapen jasangarrirako 2030 Agenda eraldatzaileari, sektorearteko begirada batetik, nola tokian tokiko dimentsioari hala mundu-mailako eraginari.</p> <p>Txostenak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta BBK Kunaren babesa dauka, eta Euskadiko hainbat talde kaltetu ezagutu eta aitortu nahi dira, gizartearen eta politika publikoetan ahaztu egiten baitira maiz. Haien egoera ere ezagutu nahi da 2030 Agendaren harira, eta, hartara, presioa egin euskal gizartearen eta erabakiak hartzen dituztenen artean, beren konpromisoak betetzeko.</p>

Esperientziaren izena	<u>2030 Agenda: Euskadiren eta bertako erakundeen zeregina mundu globalean. Abian den tren</u>
Erakundea	Euskadiko GGKEen Koordinakundea
Esperientziaren deskribapena	Eragin politikoari buruzko grafismoa, 2030 Agenda Euskadin ezartzeko urratsak laburbiltzen dituena.

Esperientziaren izena	<u>Egin bat borrokarekin</u>
Erakundea	Proclade Yanapay Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	2018-2019 kanpainako dokumentu bat da. Garapenerako lankidetzako erakundeentzat ezinbestekoak eta premiazkoak diren bi helburu lantzen dira: pobrezia desagerraraztea (1. GJHa) eta goserik ez egotea (2. GJHa). Gainera, bi gaiak giza eskubideak errespetatu eta betetzeko esparru batean kokatuta daude, eta, horrenbestez, ez dago ez betetzeko aitzakiarik. Laguntzeko ikus-entzunezko baliabideak ere baditu.

Esperientziaren izena	<u>Bidezko merkataritza eta Garapen Jasangarrirako Helburuak</u>
Erakundea	Bidezko merkataritzako estatuko koordinakundea – Kidenda
Esperientziaren deskribapena	Bidezko merkataritzako koadernoari buruzko dibulgaziozko txostena. Bidezko merkataritzak GJHei bere 10 printzipioekin egiten dien ekarpena aztertzen du. Koadernoak gaztelaniaz eta katalanez dago, eta euskara eta gaztelaniazko bertsio elebiduna ere badago.

Esperientziaren izena	<u>Bakearen aldeko heziketa eta 2030 Agenda</u>
Erakundea	Juan de los Toyos Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Argitalpen honetan aztertzen da nola txertatzen diren Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako xedeak giza eskubideen aldeko eta giza eskubideak sustatzeko heziketan, eta zer lotura dituen Lurraren Gutunarekin eta 16. GJHarekin (bakea, justizia, giza eskubideak eta erakunde sendoak).

Esperientziaren izena	<u>Euskal laneratze-enpresak: 2030 Agendaren esparruan enplegu inklusiboa sortzeko aliantzak ehuntzen</u>
Erakundea	Gizatea
Esperientziaren deskribapena	Artikulu honetan aztertzen da nolako zeregina duten laneratze-enpresek 2030 Agendaren harira. Sektore pribatuarekin izandako lankidetzaren adibideak ematen ditu, GJHak betetzen laguntzen dutenak, eta azpimarratzen da zer aukera ematen dituen egungo testuinguruak euskal laneratze-enpresen eta enpresa-sektorearen arteko aliantzak sortzeko.

Esperientziaren izena	<u>Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren eta GJHen aurrean</u>
Erakundea	Sareen Sarea
Esperientziaren deskribapena	Lehenik, Euskadin 2030 Agenda eta GJHak txertatzeko egungo testuingurua deskribatzen da, eta, Euskaditik mundura eta Sareen Sarearen nortasuna oinarritzat hartuta, gakoak ematen dira, gure lurraldean asmo handiko 2030 Agendak izan behar dituen helburuen bilaketaren ezaugarriak zehazteko, beste lurralde batzuen eraldaketan ere lagunduz.

Esperientziaren izena	<u>Garapen Jasangarrirako Helburuak. Lortuko ditugu?</u>
Erakundea	Anesvad
Esperientziaren deskribapena	Anesvad aldizkariaren 127. zenbakia. Azalaren atala GJHei eskaintzen zaie.

Esperientziaren izena	<u>Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH), balioetan hezteko eremu nahikoa baina, batez ere, egiten hasteko</u>
Erakundea	Matiz elkarte
Esperientziaren deskribapena	GJHei buruzko sarrera Matiz elkartearen webgunean.

Esperientziaren izena	<u>Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren erronkaren aurrean</u>
Erakundea	Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia
Esperientziaren deskribapena	Kudeaketako laburra, 2021eko azaroan egindako "Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala 2030 Agendaren erronkaren aurrean" webinar-jardunaldiaren edukia jasotzen duena. Lehen blokea "Hirugarren Sektorea eta Agenda 2030. Abiapuntuko egoera eta etorkizuna Euskadin" izan zen. 2030 Agendaren erronkaren aurrean Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren egoera (jarrera, abiapuntua...) zehatzago ezagutu nahi izan zen, eta 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa onartzearekin zabalduetako horizontean izan dezakeen zeregina aletu zen. Eta bigarren blokea "GJHak Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen estrategian" izan zen. Hartan, Hirugarren Sektore Sozialak GJHei egiten dien ekarpena neurtzeko tresnak azaldu zituzten, eta erakundeen estrategietan GJHak integratzeko esperientziak partekatu.

4. BARRURANZKO BEGIRADA

4.1. Plan estrategikoak

Atal honetan, EHSSko erakundeek 2030 Agenda eta GJHak berariaz txertatzen dituzten kudeaketa-dokumentuak bildu dira.

Esperientziaren izena	<u>2021-2023 Plan Estrategikoa</u>
Erakundea	Gorabide
Esperientziaren deskribapena	Gorabideren bosgarren plan estrategikoan (2021-2023), GJHen ikuspegia gogoeta estrategikoko prozesuan txertatzen da. Halatan, 2023ra bitarte garatu beharreko 61 estrategiak GJH bat edo batzuk erdiestera bideratuta daude.

Esperientziaren izena	<u>2018-2021 Plangintza Estrategikoa</u>
Erakundea	Mundukide
Esperientziaren deskribapena	Proposamena NBEren GJHeKin lerrotatzen da eta horiek betetzea du helburu, giza garapen jasagarria erdiesteko tresna gisa. Horretarako, askotariko eragileek parte hartu behar dute: administrazioek, kooperatibek, sektore akademikoak, gizarte zibil antolatuko erakundeek eta herritarrek, oro har.

Esperientziaren izena	<u>2017-2022 Plan Estrategikoa</u>
Erakundea	Ayuda MAS ONGD
Esperientziaren deskribapena	Gure munduan eta fundazioan bertan gertatzen ari diren aldaketa eta eraldaketari erantzuteko, Ayuda MASEk 2017-2022 Plan Estrategiko berria prestatu du. Hartan, fundazioa 1994an sortu zenetik aurrera egindako prozesuan sakontzen da eta eguneratu egiten da. Plan Estrategikoa eta helburu nagusia NBEren GJHeKin lerrotatuta daude.

Esperientziaren izena	<u>2020-2024 Plan Estrategikoa</u>
Erakundea	Matiz elkartea
Esperientziaren deskribapena	Plan Estrategikoko puntu hauek GJHeKin lotuta daude: <ul style="list-style-type: none"> • 3.1.4. Immigrazioa eta kultur aniztasunaren kudeaketa GJHen esparruan (2030 Agenda). • 3.2.4. Genero-berdintasuna GJHen esparruan. • 3.3.4. LGBTI kolektiboa GJHen esparruan. • 3.4.4. Jasagarritasun ekologikoa GJHen esparruan.

Esperientziaren izena	<u>2020-2025 Plan Estrategikoa</u>
Erakundea	Haurralde Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Erakundeak 2030 Agendako GJHak azpimarratzen dituen estrategia batzuk ditu, eta horien xedea hau izan da: garapen-prozesuetan laguntzea eta oinarrizko elkartearen gaitasunak indartzea; emakumeei eta gazteei prestakuntza ematea Euskadin, ipar globalean eta hego globalean, lan kolektibotik; eta ikerlanak egitea eta eragina duten espazioetan parte hartzea, proposamen zehatzak aurkeztuz eta erdian pertsonak jarritz beti.

4.2. Memoria korporatiboak

Atal honetan, erakundeek jardueri buruz egindako memoriak bildu dira, 2030 Agenda eta GJHak direla-eta egin duten lanaren xehetasunak biltzen dituztenak.

Esperientziaren izena	<u>Memoria 2021 – 2021eko txostena</u>
Erakundea	Argia Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	<p>GJHei dagokienez, memorian azpimarratzen da erakundeak ekarpenak egin dizkiela:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 3. GJHari. Osasuna eta ongizatea. Bere misioa gauzatu eta erabiltzaileak zein talde profesionalak zainduz. • 11. GJHari. Komunitate eta hiri jasagarriak. Pertsonen eskubideen alde eta estigmaren kontra borrokatu, eraldaketa soziala bultzatu eta ezagutza sortzeko jarduerekin. • 17. GJHari. Helburuak lortzeko aliantza. Sarean lan eginez eta helburu erkide edo osagarrietarako aliantzak finkatuz.

Esperientziaren izena	<u>2021eko memoria</u>
Erakundea	EDE Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	<p>Memorian, “2030 Agendarekin konektatzen” atala dago. Zehazki, EDE FUNDAZIOAK 2030 Agendari eta GJHei egiten dien ekarpena bi dimentsiotakoa da: bata kanpoko, jardueren eta proiektuen sailtako ekintza zuzenen bitartez; eta bestea, barnekoa, berdintasun-, euskara-, teknologia- eta ingurumen-batzordeen bidez. Gainera, kulturaren eta garapen jasagarriaren arteko lotura islatuta dago gure erakundeak kultur proiektuen, tokiko kulturaren sustapenaren eta garrantziaren, eta hizkuntza-normalizazioaren alde egiten duen apustuan.</p>

Esperientziaren izena	<u>2021eko memoria</u>
Erakundea	Mundukide
Esperientziaren deskribapena	<p>2021eko jardueren eta proiektuen zerrenda, 2030 Agendako GJHein lotuta.</p>

Esperientziaren izena	<u>2018ko memoria</u>
Erakundea	Munduko Medikuek
Esperientziaren deskribapena	<p>Munduko Medikuek hainbat elkarlan-inguruetan aritu da Ayuda en Acción, Unicef, Vicente Ferrer, Mundukide eta UN Etxea erakundeekin, besteak beste. Elkarlanaren helburua izan da GJHak euskal enpresa-ehunean ezartzen laguntzea, eta transmititzea Munduko Medikuekin aliantzak sortzeko 3. GJHarekin (osasuna eta ongizatea) zuzenean lerrotzea eta beste GJH batzuekin zeharka lerrotzea dakarrela.</p>

Esperientziaren izena	<u>2021eko memoria</u>
Erakundea	TAU Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	<p>Memorian, hau guztia jaso dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2021eko kanpaina: 3. GJHa: osasuna eta ongizatea. • Proiektua: adinekoentzako Antoniar elkartearen egoitza birgaitzea Betleemen. 3. GJHa erdiesten lagunduko du: bizitza osasuntsua bermatzea eta ongizatea sustatzea adin guztietako pertsona guztientzat.

4.3. Jarrera eta/edo konpromisoa adierazteko dokumentuak

Atal honetan, EHSSko erakundeek egindako dokumentuak biltzen dira, zeinetan 2030 Agendarekin eta GJHein lotutako jarrera edo konpromiso zehatzen berri ematen baita modu esplizituan.

Esperientziaren izena	<u>Agenda 2030 eta Garapen Jasangarriko 17 Helburuak</u>
Erakundea	Kale Dor Kayiko
Esperientziaren deskribapena	Ijtoak protagonista diren 17 bideo. 17 GJHak eta Kale Dor Kayiko elkarteak helburuak erdiesteko egindako ekarpenak aurkezten dira.

Esperientziaren izena	<u>GJHein dugun konpromisoa</u>
Erakundea	Argia Fundazioa
Esperientziaren deskribapena	Erakundeak guztion ahaleginari zer ekarpen egin diezaiokeen eta nola egin dezakeen hausnartzen da, eta, gainerakoak ahaztu gabe, Argia Fundazioak zer GJHekin laguntzen duen modu estrategikoan edo hurrengo urteetan zeinekin lagunduko dezakeen aztertzen da.

Esperientziaren izena	<u>Asocolvasen konpromisoa 2030 Agenda ezartzearekin</u>
Erakundea	Asocolvas – Euskadiko kolonbiarren elkarteak
Esperientziaren deskribapena	Asocolvas elkarteak hainbat GJHekin bere gain hartutako konpromisoak.

Esperientziaren izena	<u>Sareen Sarea 2030 Agendaren eta GJHen aurrean</u>
Erakundea	Sareen Sarea
Esperientziaren deskribapena	Gure lurraldean 2030 Agenda ezartzea dela-eta EHSSk hartu duen jarreraren funtsezko 10 gakoak.

Esperientziaren izena	<u>Buru Osasuna Euskadi Federazioko elkarteak eta GJHak</u>
Erakundea	FEDEAFES – Buru Osasuna Euskadi Federazioa
Esperientziaren deskribapena	Dokumentu honetan, gogoeta-prozesuaren sintesi bat dago. Elkarteek berez egiten dituzten 100 ekintza baino gehiago identifikatu dira. Horien bidez, GJHak Euskadin gauzatzen laguntzen dute.

Esperientziaren izena	<u>Gure konpromisoa garapen jasangarriarekin (ODS)</u>
Erakundea	Bidez Bidez
Esperientziaren deskribapena	Bidez Bidez Bidez elkarteak GJHein eta 2030 Agendak ezarritako xedeekin lerrokatu ditu bere proiektuak. Era horretan, Euskadik eta Gipuzkoak konpromisoa hartuta duten erronketako batean laguntzen du. Hari horretatik, GJH horietan egiten duen ekarpena lagungarria izango da, “inor atzean utzi gabe” jarduteko.

4.4. Barneko prestakuntza

Atal honetan, EHSSko erakundeek barne-egituran egindako prestakuntza-ekintzak jaso dira, 2030 Agenda eta GJHak lantzeko.

Esperientziaren izena	<u>2030 Agenda txertatzeko jardunaldia</u>
Erakundea	Gizatea
Esperientziaren deskribapena	<p>2030 Agenda Gizatearen kide diren enpresetan txertatzeko jardunaldia, Eusko Jaurlaritzaren 2030 Agenda Bonuak programaren baitan.</p> <p>Programaren helburu nagusia izan da 2030 Agenda eta GJHak Gizateako kideak diren enpresen plan estrategikoetan eta kudeaketa-planetan txertatzea, informazio- eta prestakuntza-jardunaldiak eginez.</p>

Esperientziaren izena	<u>GJHei eta 2030 Agendari buruzko jardunaldia</u>
Erakundea	Sareen Sarea
Esperientziaren deskribapena	<p>Sareen Sareak antolatu eta Inbikukinbiku dinamizatu zuen, Sareen Sarea osatzen duten sareek 2030 Agendari buruzko diskurtso erkidea prestatzeko oinarriak finkatze aldera.</p> <p>Laneko goiz batean, sareen elementu erkideak argitu ziren dinamiken bitartez, GJHeekin lotutako agenda prestatzeko.</p>

Esperientziaren izena	<u>Erakunde bazkideei informazioa ematea, sentsibilizatzea eta dinamizatzea</u>
Erakundea	EAPN Euskadi
Esperientziaren deskribapena	EAPN Euskadik erakunde bazkideei informazioa eman, sentsibilizatu eta dinamizatzekeo prozesu espezifikoa egin du 2030 Agenda ezartzea dela eta.

Esperientziaren izena	<u>2030 Agendari eta GJHei buruzko barneko prestakuntzako jardunaldia</u>
Erakundea	Harresiak Apurtuz
Esperientziaren deskribapena	<p>Bi prestakuntza-jardunaldi egin ziren Harresiak Apurtuzeko erakunde bazkideentzat.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zer egingo dugu erakundeok 2030 Agendarekin? Diskurtsoa eraikitzea, lana agerian jartzea. 2. 2030 Agenda jardunaldia: hausnarketa-praktika irekiak begirada intersektionalarekin.